## Nafarroako euskarazko hedabideak. Kronologia txiki bat.

| | |
|---|---|
| 2008ko hasiera | 310.000 euroko aurrekontua euskara hedabideetan sustatzeko |
| 2008ko uztaila | Krisiaren aitzakian, Gobernuak 310.000 euroko partida 'blokeatu' |
| 2008ko urria | Hedabideen agerraldi publikoa egoera salatuz. Bi eskaera zehatz:<br>• Partida desblokeatzea<br>• Jarduera egonkortzeko hitzarmena elkarlanean lantzea |
| 2008ko azaroa | Hedabideen bilerak alderdi guztiekin egoeraren eta hitzarmen proposamenaren berri emateko.<br>Diru-partidaren 'desblokeo partziala': 240.000 euro. |
| 2008ko abendua | Hedabideen agerraldia Parlamentuko Hezkuntza Batzordean.<br>Parlamentuak 2009ko aurrekontua onartu:<br>• hedabideentzako partida: 9.567 euro. %96,7ko murrizketa<br>• Euskarabidearen aurrekontuan %25eko murrizketa. Hala ere, igoera nabarmenak bi kontzeptutan: goi karguen diru-sariak eta komunikazioa |
| 2009ko urtarrila | Carlos Perez Nievasek eta Xabier Azanzak diru gehiago lortuko dutela diote.<br>Ttipi-Ttapa TBren emisioak bertan behera utzi, besteak beste arazo ekonomikoak tarteko. |
| 2009ko otsaila | Parlamentuaren Hezkuntza Batzordeak hedabideekin hitzarmena lantzeko eskatu zion Gobernuari, 'euren finantzazioa objetibatzeko'. |
| 2009ko apirila | Xorroxin Irratiak diru-bilketa berezia iragarri. |
| 2009ko maiatza | Hedabideen eta Gobernuaren arteko lehen bilera hitzarmena lantzen hasteko.<br>Nafarroako Gobernuak telebista digitalentzako diru-laguntza deialdia egin zuen. **Hiru milioi euroko** partida bideratu zuen horretara. |
| 2009ko ekaina | Euskararen Nafar Kontseiluaren akordioa hitzarmenaren alde.<br>Hitzarmenaren inguruko bigarren bilera: Azanzak dio, diru laguntza deialdiaren gainean hitzarmena egiteko arazo legalak daudela, Nafarroako Gobernuaren legelariaren arabera.<br>Hitzarmenaren inguruko hirugarren bilera: 2009ko diru laguntza deialdiaren gaineko alderdi teknikoa lantzen da Nafarroako Gobernuaren agindua Euskalerria Irratiaren eta EiTBren antenak kentzeko. |
| 2009ko uztaila | Laugarren bilera hitzarmenaren inguruan. Azanzak dio |

| | |
|---|---|
| | 240.000 euroko partida lortu dela. Hedabideek eskatu zuten diru-laguntza deialdia irailaren hasiera-hasieran egiteko, eta irailetik aurrera fondoko gaiari (2010tik aurrera egoera egonkortzeko segitu beharreko bideari) heltzeko |
| 2009ko iraila | Lehen hamabostaldia igaro da diru-laguntza deialdirik gabe.<br>Gobernuak partiden 'blokeoa' ezarri, berriz ere 2008ko irraileko egoera berbera eraginez.<br>Hedabideok blokeoaren berri jaso eta bosgarren bilera konbokatzeko eskatu diogu Euskarabideari.<br>Hedabideok eskatuta, uztaileko bileraren akta jaso dugu. Bileran, Azanzak dio diru laguntza deialdia egiteko Gobernu Akordio bat behar dela eta hori lortzeko lanean ari dela dela Perez Nievasekin.<br>Gobernuaren haustura. Azanzaren adierazpenak BERRIAn: *"Perez-Nievasek abuztuan dirua lortu zuen, baina gobernu hausturarekin blokeatu* ***egingo*** *da*". (Dirua haustura baino lehenagotik ere blokeatuta dago). |
| 2009ko urria | Urtebeteko lanaren ondoren, egoera berdin-berdinean gaude:<br>• Urteko diru-laguntzen arrastorik ez<br>• Hitzarmenik ez<br>• Gainera, Euskarabidearen beraren egoera kolokan |